

Itxi gabeko auzia

Errektore berria, arazo zaharra. Iñaki Goirizelaiak, bere aurrekoek bezala, aspalditik sendatu gabeko zauria aurkituko du EHUren agendan, eta ikusteko dago ixteko ahaleginik egingo ote duen. Pankartako irakasleak, irakasle kaleratuak... Arazoak izen desberdinak ditu, ikuspuntuaren arabera. Iaz gatazka guztiz konponduta zegoela ematen zuen, baina pankartan jarraitzen dute irakasle bik.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona

ORAIN DELA HAMARKADA BI, EHUko ehunka irakasle asoziatuak –funtzionarioak ez direnak– borroka abiatu zuten unibertsitatearekin lan-kontratu harremana lortzeko xedez. Baina legediak ez zuen, artean, halakorik jasotzen. Asoziatuek behin-behineko kontratua eduki behar zuten nahi eta nahi ez, eta aldiro berritu. Protesta gisa, kontratu hori sinatzeari uko egin zioten ehun bat irakaslek 1990ean. Gatazka epaitegietako bidea hartu zuen eta azkenik, 1992an EAEko Auzitegi Nagusiak EHUri eman zion arrazoia. Irakasle gehienek betiko kontratua izenpetzea ametitu zuten, bederatzik izan ezik. Eskolak ematen jarraitu zuten, baina kobratu gabe eta azterketetako aktak sinatu gabe. Urtebete geroago, bederatzik haieetatik sei gelditzen ziren.

Testuinguru hartan eman zen Juan Jose Goiriarena de Gandarias orduko errektorearekin negoziazioa, baina saio hura zapuztu egin zen, eta sei irakasleak EHUtik erabat kanpo gelditu ziren. 1993. urtea zen, eta orduantxe hasi zen pankarta ezagunaren historia.

Iaz, bazirudien borroka luze horren helburu guztiak lortuta zeudela. Batetik, pankartakoek aldarrikatzen zuten “irakasle propioa”, lan-kontratudun irakasle finkoa alegia, ordenamendu juridikoan jasota zegoen azkenik, PPK 2001ean ezarritako LOU legeari esker. Bestetik, EAEko Unibertsitate Legeak urtetako blokeoa gainditu zuen, Espainiako Konstituzio Auzitegiak haren aurkako helegitea ezetsita. Iztueta sailburu ohia- ren izenaz ezagutzen dugun lege horren arabera, EHUra itzultzeko aukera eduki dezakete handik kanpo dauden irakasle guztiak, baldin eta aurretik bertan jardun badute gutxienez bost urtez.

Modu horretan irekitako atea zeharkatu eta unibertsitatera itzuli ziren, 2007/08 ikasturtean, Jose Ramon Etxebarria eta Jexuxmari Zalakain –gaur egun 18/98 sumarioa dela-eta espetxera-

tua–, hamalau urte pankartan eman zituzten irakasleetako bi. Beste hirurek –Antton Azkargortak, Enrike Lopezek eta Jose Luis Herrero- kanpoan jarraitzen dute, baina arrazoi desberdi- nengatik. Lopezi legeak ez dio sarrera ahalbide- tzen, ofizialki ez baititu bost urte egin EHU- n. Azkargortak eta Herrero- badute behar adina- ko antzinatasuna, baina unibertsitatera itzul- tzeari uko egin zioten, euren borrokaren helbu- ruak lortutzat eman arren. Zergatik?

Perez Iglesiasen saioa 2005ean

Errektoretza utzi berri duen Jose Ignacio Perez Iglesiasek, bere agintaldia hasi eta gutxira, EHU- ren gaitz kroniko bihurtzen hasia zena sendatu nahi izan zuen. Hala, unibertsitateko ordezkari- ak eta kaleratutako irakasleak elkarrekin jesarri ziren mahai beraren inguruan, irtenbide bila.

“Une hartan”, adierazi digu Antton Azkar- gortak, “gauzak ez zeuden, lege aldetik, gaur dauden bezain garbi, horregatik nahiago izan genuen, gu EHUra itzultzeko baldintza zeha- tzak negoziatzen hasi baino lehen, bai Iztueta Legea bai LOU zertan geratuko ziren jakin arte itxaron”. Momentu hartan egiten ziren aurrei- kuspenek ez ziruditen pankartakoen oso alde- koak. Iztueta Legea geldi zegoen PSOE- k Konstituzio Auzitegian jarritako helegiteagatik, eta zurrumurruek zioten epaileen ebazpenak ez ziela mesede handirik egingo kaleratutakoei. “LOUk, berriz, lan-kontratudun irakasle figura sortua zuen, bai, baina oso baldintza txarretan, ia ordezkari- tzarik gabe uzten baitzuen irakasle mota hori, funtzionarioen mesedetan”.

Azkargortak eta Herrero- k, pankartari eusten segitzen duten biek, nahiago izan zuten itxa- ron, baina Etxebarriak eta Zalakainek EHUre- kin hitz egiten jarraitu zuten. Taldea hautsita zegoen, azken biek *Garan* argitaratutako eskuti- tzaren bitartez adierazi bezala. Enrike Lopezek

gehiago dio: “Irakasle kaleratuen kolektiboa benetan ez zen inoiz existitu”. Lopez bera taldetik aldentuta zegoen ordurako.

2007ak aldaketa nabarmenak ekarri zituen: Iztueta Legeak aurrera egin zuen. Ordurako, gainera, PSOEek ezarria zuen LOUren Erreforma Legea, lan-kontratudunei eskubide gehiago aitortuz. “Hori funtsezkoa zen guretzat, egia esan”, aitortu du Azkargortak, “LOUk hasieran ipintzen zituen baldintzekin seguruenik ez genukeen unibertsitatera itzultzea onartuko, Iztueta Legeak horretarako aukera eman arren”.

Testuinguru horretan, Jose Ramon Etxebarria eta Jexuxmari Zalakain EHURA itzuli ziren. *Garako* gutunean azaldu zuten, “gure aldarrikapenen alderik oinarrikoenak behin lortuta (...), gu EHURA itzultzea ahalbidetu dute zenbait egoerak eta borondatek (Iztueta Legearen aurkako helegitearen desblokeoak batez ere)”. EHUK berriz, hauxe esan digu, Etxebarria eta Zalakain zein baldintzatan itzuli diren galdetuta: “Beste irakasle asko bezala, EAEko Unibertsitate Legeak eskaintako bitartekoak baliatuz sartu dira EHUn”.

Azkargortak eta Herrero berriz, urte bi lehenago utzitako negoziazioa oster hasteko borondatea agertu zioten unibertsitateari idatzi baten bidez, baina ez zuten –ez dute oraindik– erantzunik jaso. EHUK dio Iztueta Legeak ematen dien aukera hor daukatela irakasle biek, baina haiek besterik nahi dute.

“Negoziazioa eskatzen dugu”, azaldu du Jose Luis Herrero, “1993an egin genuenaren baldintza beretan: alde biek onartutako bitartekari bat egon dadila, adostutakoa publikoa izan dadila eta kaleratuen kolektibo osoari eragin diezaiola”. Negoziazioaren gaia honakoa izango litzateke: nola gauzatu pankarta atzean emandako urteen aitortpena. “EHUK ezin du jokatu gu hamabost urtez eszedentzian egon bagina legez”, dio Azkargortak, “gu borrokan egon gara, lan-kontratu onartua izan dadin hain zuzen, eta itzuliko



Antton Azkargorta eta Jose Luis Herrero –argazkian ezkerreko biak– pankartari eusten EHUn Leioako campuseko atarian.

bagara hori kontuan hartua izan dadin eskatzen dugu”. Aldarrikapena, azken batean, lan-baldintzei dagokio batez ere. 1990ean burkide izan zituzten ehun lagun haien baldintza berak nahi dituzte: antzinatasuna, soldata... Azken urtean EHU negoziatzera bultzatzeko egindako ahaleginak antzuak suertatu zaizkie, eta diotenez, ez dute itxaropen handirik Iñaki Goirizelaiak gaierikiko agertuko duen jarreraz.

Enrike Lopezen kasua

Zailago du Enrike Lopezek. Ofizialki bost urte baino gutxiago egin zituen EHUn, beraz ez du aukerarik sartzeko. Baina 1992-93 bitartean kontraturik gabe egindako lana aitortuko balioite, gaitutua luke bost urteko epea. Hala, iaz idatzi bat helarazi zion Perez Iglesias errektoreari, “ofizialki inon ere agertzen ez diren eta benetan eman nituen bi ikasturteak onartzeko” eskatuz. Horrek atea zabalduko lioke, nahiz eta ez duen argitu hura zeharkatuko lukeen. Legedi aldaketak gorabehera, Espainiako Estatuaren morroi izatea leporatzen dio Lopezek EHUri. “Ez dut unibertsitate honetan sinesten”. ■



Dive Tarpoon Urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala • 48992 Getxo • Tel / Faxa: 94 4912577

e-posta: divetarpoon@euskalnet.net • web orria: www.divetarpoon.com

